GORABIDE

GORATU

Desgaitasuna duten pertsonekin batera ikasten

ADIMEN URRITASUNA DUTEN PERTSONEN BIZI-KALITATEA

DIMENTSIOA: NEURE ERABAKIAK HARTZEA

Hausnarketarako galdera hauek proposatzen dizkizugu... animatzen zara?

Ikertzeko puntuak: zer da neure erabakiak hartzea?

Neure erabakiak hartzen ditut. Aukeratu ahal dut, adibidez, non bizi naizen, norekin, nora noan oporretan, norekin irteten naizen eta norekin ematen dudan nire aisialdia, norekin elkarbanatzen dudan nire gela, non egiten dudan lan edo zeintzuk gauza egin nahi ditudan nire bizitzan. Adierazi ahal dut desiratu eta sentitzen dudana. Badakit zertan naizen trebea eta zertan hobetu behar dudan.

Nire autodeterminazioa aztertzeko, honako hau izaten dut kontutan:

- Pertsonal helburu eta xedeak dauzkat.
- Niretzat garrantzitsua den zerbait egiteko asmoa dut.
- Badakit zer gustatzen zaidan eta zer dudan nahiago.
- Badakit zer den ona niretzat eta zer komeni zaidan.
- Nire eguneroko bizitzan neure erabakiak hartzen ditut.
- Banaiz nire kabuz gauzak egiteko gai eta badakit nire buruaz arduratzen.
- Beste pertsonekin neure eskubideei buruz hitz egiten dut.



Nire tokian jartzeko galderak: zer pentsatu eta sentitzen dugu adimen urritasuna dugun pertsonok?

- Denok dauzkagu trebetasunak eta mugak.
- Porrot asko jarraian jasaten baditugu txarto sentitu ahal gara.
- Adimen urritasuna dugun pertsona batzuk egunero laguntza asko behar ditugu.
- Denok bezala, guk ere afektibitate eta sexu-beharrak dauzkagu.
- Gure arteko bakoitza pertsona errepikaezina da.

- Gure amets eta xedeak dauzkagu.
- Gauza asko egiteko gai gara.
- Eskubide eta betebeharrak dauzkaten nagusiak bezala sentitu nahi eta behar dugu.
- Ez zaigu gustatzen gauzak eginda ematea.
- Gutariko batzuk lan egin nahi dugu.
- Laguntza badaukagu autonomia handiagoz ibili ahal gara.
- Batzuetan pertsonek gurekiko aurreiritziak dauzkate edo informazioa faltan dute.
- Geure erabakiak hartzea gustatzen zaigu.
- Denok gara desberdiak.
- Ez zaigu gustatzen umeak bezala tratatuak izatea.
- Adimen urritasuna dugun zenbait pertsonek gauza zehatz batzuk egiteko laguntza behar dugu.
- Gauza batzuetan beste batzuetan baino trebeago sentitzen gara.
- Gizarteak onartzen gaituela eta honen parte aktiboa garela sentitzeko beharra dugu.
- Jakin behar dugu gure bizitzaren nolabaiteko kontrola daukagula.
- Ikastea eta pertsonak bezala haztea gustatzen zaigu.
- Erratu behar gara gure akatsetatik ikasteko.
- Eskakizunak oso altuak badira, blokeatu eta frustra gaitezke.
- Beste pertsonekiko harreman onez gozatzeko beharra daukagu.
- Guretzat teknologia ere laguntza handia izan daiteke.
- Adimen urritasuna dugun pertsonok izaera desberdinak dauzkagu.
- Bizirik gaude!

Hausnarketarako galderak: Zer uste duzu? Zer sentitzen duzu?

Zer uste duzu aitorpen honi buruz? Zeintzuk arau egingo zenituzke zeure? Nortzuk uste duzu mehatxu handiagoaren menpe daudela? Nola lagun genezake gure lekutik aitorpen hau errealitate bihurtzeko?

Elkarbanatzeko galderak: zer pentsatzen dute beste pertsonek? Zer sentitzen dute?

Autogestoreen Europako Plataformak (AEP) modu aktiboan lan egiten du helburu hauek lortzeko:

Jendeari adimen urritasuna duten pertsonen eskubide, gaitasun eta beharrei buruz hitz egiteko.

Europan autogestoreen taldeen ordezkariak izateko.
Autogestoreentzat garrantzitsua denari buruz politika buruzagiekin hitz egiteko.
Europako gertakizun garrantzitsuei buruzko informazio eskuragarria argitaratzeko.

(AEP) Autokudeatzaileen Europako Plataformari buruz gehiago jakiteko:
http://inclusion-europe.eu/?page_id=141&lang=es
Hona hemen Kroaziako Senada Halilcevic-ek, AEPeko egungo Presidentak 2016ko apirilaren 27an NBEn (Nazio Batuen Erakundea) eman zuen mintzaldiaren laburpena:

"Ahozkora adierazi nahi dut autokudeatzaileontzat zer den guregain bizitzea eta komunitatearen barne gaudela sentitzea:
- *Zeure bizi-bidea eta bizitzeko modua aukeratzea*
- *Bizi zaren tokia aldatzeko askatasuna eta laguntza izatea*
- *Besteen presiorik gabe erabakiak hartzea*
- *Askatasunez iritzia ematea honegatik zigortua izan gabe*
- *Hezkuntzarako aukerak izatea eta saridun lanak lortzea*
- *Zeure dirua erabiltzeko askatasuna izatea*
- *Beste hiritar guztiek bezala zerbitzu publikoetarako sarbidea izatea*
- *Edozein bortizkeria motaren kontra babestuta egotea*
- *Akatsak egiteko askatasuna edukitzea*

Oso garrantzitsua da adimen urritasuna duten pertsonak ahalduntzea eta laguntza-zerbitzu eta adituekiko beren askatasuna bermatzea. Jakin badakit oso zaila dela adimen urritasuna duten pertsonen erakundeak eta beren familiak guztiz gizarteratzea. Honek eskatzen du pentsaeraren erabateko aldaketa eta baita gizarteak eta adituek adimen urritasuna duten pertsonak tratatzen dituzten era ere. Hiritar aske eta berdinak gara eta gizarteak horrela tratatzea nahi dugu.

Mintzaldi osoa eskuragarri dago Europako Gizarteratze Plataformaren web orrialdean, Europa mailako adimen urritasuna duten pertsonen eta beren familien erakundeen plataforma.
(http://www.plenainclusion.org/sites/default/files/discursosenada-19-04-16.pdf)

Zeure ondorioak: